




# LEHEN HEZKUNTZA

## 4. MAILA

**IRAKASLEAK**

### ITEM LIBERATUAK

### HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA EUSKARAZ



**ISEI-IVEI**  
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU  
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA  
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN  
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

**EUSKO JAURLARITZA**

HEZKUNTZA SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

## Argitaratzailea: ISEI-IVEI

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea  
Asturias, 9-3º  
48015 Bilbo  
Tel. 94 476 06 04  
info@isei-ivei.net  
<http://www.isei-ivei.hezkuntza.net>

**2019ko urtarrila**

## AURKIBIDEA

1.	KONPETENTZIAREN DESKRIPZIOA .....	5
2.	KONPETENTZIAREN DIMENTSIOAK.....	7
3.	AURREKO MARKOA (2008) .....	9
3.1.	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA EUSKARAZ. DIMENTSIOAK.....	11
3.2.	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAREN ITEM ADIBIDEAK. EUSKARA ...	13
3.2.1.	ENTZUMENA .....	13
3.2.1.1.	Marte .....	13
3.2.1.2.	Eguraldia .....	18
3.2.2.	IRAKURMENA.....	22
3.2.2.1.	Postala .....	22
3.2.2.2.	Zer da GPS-a?.....	27
3.2.2.3.	Elurra .....	32
4.	MARKO BERRIA (HEZIBERRIN OINARRITUTA).....	36
4.1.	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA EUSKARAZ. DIMENTSIOAK.....	38
4.2.	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAREN ITEM ADIBIDEAK. EUSKARA ...	39
4.2.1.	ENTZUMENA .....	39
4.2.1.1.	Marmelada .....	39
4.2.2.	IRAKURMENA.....	45
4.2.2.1.	Txikibarren.....	45



## I. KOMPETENTZIAREN DESKRIPZIOA

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia hizkuntza erabiltzeko trebetasuna da, hau da, kontzeptuak, sentimenduak, gertakariak eta iritziak ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez adierazi eta interpretatzekoa eta gizarte- zein kultura ingurune guztietan linguistikoki elkarreragitekoa.

Entzutea, mintzatzea eta solas egitea trebetasun linguistiko eta ez-linguistikoak beharrezkoak dituzten ekintzak dira besteekiko eta ingurunearekiko loturak ezartzeko. Horretarako, komunikazio-trukearen berezko arauak erabili behar dira testuinguru ezberdinetan, eta ahozko mintzairaren berezko ezaugarriak identifikatu behar dira komunikazio-egoera bakoitzerako egokiak diren ahozko diskurtsoak interpretatu eta ekoizteko.

Irakurtzea eta idaztea informazioa bilatu, bildu, hautatu eta prozesatzeko trebetasunak beharrezkoak dituzten ekintzak dira, pertsona askotariko komunikazio asmoak dituzten testu-mota ezberdinak ulertu eta ekoizteko gaitzen dutenak.

Hizkuntza-komunikaziorako oinarriko gaitasunak komunikazioaren egintzan elkarlotzen eta elkar elikatzen diren abilezien, ezagutzen eta jarriren multzoa barne hartzen du.

Abileziak edo prozedurak askotariko diskurtsoak entzun eta ulertzeko nahiz mintzairaren bidez norberaren ideiak adierazteko beharrezkoak diren trebetasunak dira. Komunikazio-trukea arautzeko beharrezkoak diren estrategiak barne hartzen dituzte, eta baita irakurketa-helburu ezberdinak dituzten askotariko testuak irakurri eta ulertzeko trebetasunak nahiz asmo ezberdinekin askotariko testuak, idazketa prozesuaren fase guztiak kontrolatuz, idazteko trebetasunak ere.

Ezagutzak edo kontzeptuak beharrezkoak dira hizkuntzaren eta haren erabilera arauen inguruan gogoeta egiteko. Zehazki, alderdi linguistiko, soziolinguistiko eta pragmatikoei buruzko ezagutzak dira.

Jarrera egokiak dira entzutea, iritziak trukitzea eta besteen usteekiko errespetua nahiz kulturarteko komunikazioarekiko interesa sustatzen dituztenak. Kompetentzia honen funtsezko osagai bat kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren balorazio positiboa da, beste kultura eta herrialde batzuetako pertsonekin komunikatzeko eta harremanetan jartzeko bitarteko gisa. Era berean, irakurketa zein idazketarekiko jarrera positiboa bultzatu behar da, lehena gozamen- eta ikaskuntza-iturri moduan eta bigarrena gizarte-erregulaziorako eta ezagutza helarazteko tresna moduan.

Kompetentzia hau garatzeak hizkuntzak erabileraren bidez ikastea dakar askotariko komunikazio-egoera eta -testuingurutan; izan ere, abileziak edo prozedurak, hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian funtsezko eduki direnak, erabileraren poderioz –eta erabileraren inguruan hausnartuta, hobetu ahal izateko– soilik garatzen dira. Ezinbestekoa da hizkuntza erabileraren egoeratan behatu eta aztertzea tresna hori hobeto menderatu ahal izateko, eta horrek hizkuntzaren erabileran esku hartzen duten osagai guztiei buruz gogoeta egitera garamatza.

Euskal Autonomia Erkidegoan, hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bi hizkuntza ofizialak – euskara eta gaztelania– modu egoki eta eraginkorrean erabiltzean zertzen da, testuinguru ezberdinetako askotariko komunikazio-egoeratan eta gero eta maila formal eta konplexuagoz. Atzerriko hizkuntzen komunikazioan, kompetentzia honen garapenaz aurrez aipatu hizkuntza-trebetasunei lotutako oinarriko abileziak eskuratzea lortu behar da, komunikazio-egoera eguneroko eta mugatuagoetan.



## 2. KOMPETENTZIAREN DIMENTSIOAK

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bloke handi batzuetan egituratu da, DIMENTSIO deituak. Dimentsio horietako bakoitza EBALUAZIO IRIZPIDE batzuetan zertzen da, eta irizpide bakoitzerako ikasleak jakin eta egiten jakin behar duena azaltzen duten LORPEN ADIERAZLE batzuk xedatu dira.

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia **DIMENTSIO** hauetan egituratuta dago:

- **ENTZUMENA**
- **IRAKURMENA**
- **MINTZAMENA**
- **IDAZMENA**
- **AHOZKO ELKARREKINTZA**

**ENTZUMENA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarrerren oinarritzko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek batez ere hizkuntzaren erabileraren bi arloekin du zerikusia: pertsonarteko harremanak eta komunikabideak.

**IRAKURMENA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuen zentzua berreraikitzeke trebetasun, ezagutza eta jarrerren oinarritzko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honek ezagutzaren gizaratean funtsezkoak diren informazioaren tratamendu eta hautaketarako oinarritzko trebetasunak biltzen ditu.

**MINTZAMENA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren ahozko diskurtsoak, batik bat norberak kudeatuak, ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarrerren oinarritzko multzoa barne hartzen du. Dimentsio honen baitan, komunikazioegoera ezberdinetara egokitutako ahozko diskurtsoen ekoizpena gobernatzen duten berariazko trebetasunak menderatu behar dira; diskurtso horiek beren edukiaren antolaeran koherenteak eta bateratuak izan beharko dute.

**IDAZMENA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalerako beharrezkoak diren idatzizko testuak ekoizteke trebetasun, ezagutza eta jarrerren oinarritzko multzoa barne hartzen du. Testuok askotarikoak eta ezberdinak izango dira, komunikazio-egoera anitzetara egokituak, edukiaren antolaeran koherenteak eta testualki bateratuak, eta alderdi formaletan zuzenak.

**AHOZKO ELKARREKINTZA** dimentsioak Derrigorrezko Hezkuntza bukatzean ikasleen errealizazio pertsonal, akademiko, sozial eta profesionalari begira behar bezala garatu behar den pertsonarteko komunikazioa sustatzeko oinarritzko trebetasun, ezagutza eta jarrerren multzoa barne hartzen du. Berariazko ezaugarriak dituen dimentsio bat da, batik bat esanahiaren negoziazio partekatuari eta arau soziokomunikatiboak errespetatzeari lotuak.





### 3. AURREKO MARKOA (2008)



### 3.1. HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA EUSKARAZ. DIMENTSIOAK

<b>ENTZUMENA</b> Ebaluazio irizpideak	<b>IRAKURMENA</b> Ebaluazio irizpideak	<b>MINTZAMENA</b> Ebaluazio irizpideak	<b>IDAZMENA</b> Ebaluazio irizpideak	<b>AHOZKO ELKARREKINTZA</b> Ebaluazio irizpideak
<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea.</li> <li>2. Ahozko testuen helburua antzematea.</li> <li>3. Ahozko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea.</li> <li>4. Ahozko testuen edukia kritikoki interpretatzea.</li> <li>5. Ahozko testu-mota ezberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea.</li> <li>2. Idatzizko testuen helburua antzematea.</li> <li>3. Idatzizko testuetan, proposatutako helburuei begira garrantzia duten informazioak hautatzea.</li> <li>4. Idatzizko testuen edukia kritikoki interpretatzea.</li> <li>5. Idatzizko testu-mota ezberdinak hobeto ulertzeko estrategiak erabiltzea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Komunikazio egoeraren ezaugarriak aintzat hartzea.</li> <li>2. Ekoizpen-prozesua planifikatzea.</li> <li>3. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea.</li> <li>4. Kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Komunikazio egoeraren ezaugarriak kontuan izatea.</li> <li>2. Ekoizpen-prozesua planifikatzea.</li> <li>3. Adierazi beharrekoa egoki eta zuzen adieraztea.</li> <li>4. Kontroleko eta egokitzapeneko estrategiak erabiltzea.</li> </ol>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Komunikazio trukeetan modu aktibo eta egokian parte hartzea.</li> <li>2. Arau soziokomunikatiboak errespetatzea.</li> <li>3. Komunikazioari eusteko eta haren eraginkortasuna areagotzeko estrategiak erabiltzea.</li> </ol>



## 3.2. HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAREN ITEM ADIBIDEAK. EUSKARA

### 3.2.1. ENTZUMENA

#### 3.2.1.1. Marte

<b>TESTUAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Testuaren izenburua:</b>	MARTE.
<b>Erabilera esparrua:</b>	KOMUNIKABIDEAK / AKADEMIKOA
<b>Testuaren generoa:</b>	ERREPORTAJEA / ELKARRIZKETA
<b>Iturria:</b>	EUSKADI IRRATIA
<div style="display: flex; align-items: center;">  <p><a href="#">1 Marte. mp3</a></p> </div> <p style="text-align: center;"><b>Audioa entzun eta galderei erantzun.</b></p> <p style="text-align: center;"><b>MARTE</b></p> <p><b>TRANSKRIPZIOA</b></p> <p>- ... ba urak sortu ote zituen edo ez, eta bizitarik ba ote dagoen Marten. - Hori da, hori da. Eta azken batez oso lotuak doazen bi, bi gai dira. Guk, dakiguneraino behintzat, ura ezinbestekoa da bizitza sortu dadin. Hortaz, ... mm ..., orain bidali berri diren eta bidaltzeko, laster bidaltzeko diren espazio-ontzi guzti horien helburu nagusia horixe da: ea Marten ura dagoen zehaztu dezaketen. Orain arte uste da baietz, ba dagoela izotza lurpean behintzat, baina ditugun zantzuak ez dira zuzenak, e? zeharkako frogak dira. Orduan, beno, oraingoan ... e ... helburua izango litzateke hori zehaztea: ea urik dagoen ala ez. Horrek aukera emango lukeelako bizitza egon dadin edo egona izan dadin, e? Orduan, eta horrek izango luke, beno, hori baieztatzeak eta, beno, helburu horrekin ere diseinatu dira esperimentu batzuk bidali diren espazio-ontzietan, beno, hori izango litzateke garrantzi izugarriko esperimentu bat edo ... hori jakiteak garrantzi izugarria izango luke: bizitza dagoen ala ez. Eta lehengo pausua izango litzateke, dudarik gabe, ura dagoen ala ez argitzea.</p> <div style="text-align: center;">  </div>	

01

Zertaz hitz egiten dute?

- A. Urari buruz.
- B. Marteri buruz.
- C. Hasieran ez da esaten.
- D. Esperimentu bati buruz.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Testuaren gai orokorra antzematen du.
<b>Erantzun egokia:</b>	B / Marteri buruz.

02

Zer da beharrezkoa toki batean bizitza sortzeko?

- A. Ura.
- B. Lurra.
- C. Gizakiak.
- D. Animaliak.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen edukia interpretatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Testuaren osagai inplizitu batzuk berreraikitzen ditu.
<b>Erantzun egokia:</b>	A / Ura.

**03**
**Zertarako bidali dituzte espazio ontziak?**

- A. Ilargira joateko.
- B. Marte ezagutzeko.
- C. Marten ura dagoen ala ez aztertzeke.
- D. Marten bizitza posible den jakiteko.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Eskatutako berariazko informazio gehienak aurkitzen ditu.
<b>Erantzun egokia:</b>	C / Marten ura dagoen ala ez aztertzeke.

**04**
**Marten ura egotekotan, nola egongo litzateke?**

- A. Izoztuta lur azpian.
- B. Lakuetan, lur azpian.
- C. Planetaren itsasoetan.
- D. Ez litzateke inon egongo: Marten ez dago urik.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Eskatutako berariazko informazio gehienak aurkitzen ditu.
<b>Erantzun egokia:</b>	A / Izoztuta lur azpian.

05

Orain arte dauden frogak, nolakoak dira?

- A. Ez dira seguruak.
- B. Onak: fidagarriak dira.
- C. Ez dago inolako frogarik.
- D. Argazki batzuk baino ez daude.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantziko informazioa hautatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Eskatutako berariazko informazio gehienak aurkitzen ditu.
<b>Erantzun egokia:</b>	A / Ez dira seguruak.

06

Aukeratu entzun duzun testurako izenburua.

- A. Ura dago Marten?
- B. Bizitza dago Marten?
- C. Esperimentu berriak Marten.
- D. Bizi ahal izango gara Marten?

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Idea nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.
<b>Erantzun egokia:</b>	A / Ura dago Marten?



07

Entzundako testua...

- A. Albiste da.
- B. Iragarkia da.
- C. Elkarrizketa da.
- D. Ipuin kontaketa da.


**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen helburua antzematea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Testuaren generoa antzematen du.
<b>Erantzun egokia:</b>	C / Elkarrizketa da.

### 3.2.1.2. Eguraldia

<b>TESTUAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Testuaren izenburua:</b>	EGURALDIA
<b>Erabilera esparrua:</b>	KOMUNIKABIDEAK
<b>Testuaren generoa:</b>	AZALPENEZKOA
<b>Iturria:</b>	EUSKADI IRRATIA






**[2 Eguraldia.mp3](#)**

**Hurrengo audioa entzun eta galderei erantzun.**

**TRANSKRIPZIOA**

Jakin dezagun zer eguraldi izango dugun ondorengo orduetan batez ere bihar. Euskalmet zerbitzuen informazioa.

N: leku gehienetan berdintsu mantenduko da giroa zerua nahiko garbi eta tenperatura oso epel baina barnealdeko mendietan, Pirinioetan eta ipar Euskal Herriko hainbat lekutan ekaitzak jo dezake ondorengo orduetan eta bihar ekaitz arriskua egongo da baina eguneko ordurik gehienetan eguzkia eta beroa izango ditugu lagun tarteka bai goiko hodeiak ikusiko ditugu, baina ez dute eguzkia guttiz estaliko eta hego haizeak tenperatura altuak ekarriko dizkigu bihar hogeita zazpi (27) hogeita zortzi (28) gradura ailegatuko dira termometroak Euskal Herriko leku askotan bai barnealdean bai kostaldean ere, baina bero honen eraginez, gero arratsaldean zehar trumoi hodeiak sortuko dira eta iluntze aldera ekaitza bota dezake baina arriskurik handiena bihar Pirinioetan izango dugu beraz oro har giro eguzkitsua nagusituko da eta esan bezala beroa izango dugu biharkoan ere

Euskalmetek eguraldia eskaini dizu , informazio gehiago nahi baduzu, begiratu Euskalmet.net

**01**

**Nork eman du informazioa?**

- A. Kazetari batek.
- B. Euskadi irratiak.
- C. Irratiko albistegiak.
- D. Euskalmet zerbitzuak.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen helburua antzematea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Testuaren igorlea antzematen du.
<b>Erantzun egokia:</b>	D / Euskalmet zerbitzuak.

02

**Pirinioetan ekaitz arriskua dago baina beste leku batean ere bai. Non?**

- A. Nafarroan.
- B. Hegoaldean.
- C. Ipar Euskal Herrian.
- D. Oro har, Euskal Herri osoan.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Eskatutako berariazko informazio gehienak aurkitzen ditu.
<b>Erantzun egokia:</b>	C / Ipar Euskal Herrian

03

**Zein da testuaren ideia nagusia?**

- A. Oro har, euria egingo du; Pirinioetan, aldiz, eguzkitsua.
- B. Eguraldia oso eguzkitsua izango da, eta zerua guztiz urdina.
- C. Giro beroa egingo duela eta gauean ekaitz arriskua izango dela.
- D. Eguraldi nahasia egingo duela: ekaitza eta euria, hain zuzen ere.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Idea nagusiak eta bigarren mailakoak antzematen ditu.
<b>Erantzun egokia:</b>	C / Giro beroa egingo duela eta gauean ekaitz arriskua izango dela.

04

Informazio zehatzagoa nahi baduzu, nora jo dezakezu?

- A. Ez dute esaten.
- B. Interneteko gune batera.
- C. Eguraldiari buruzko saioretara.
- D. Euskalmet izeneko egunkarira.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen edukia interpretatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.
<b>Erantzun egokia:</b>	B / Interneteko gune batera.

05

Zeri buruz hitz egiten da entzun duzun testuan?

- A. Ekaitz arriskuari buruz.
- B. Udako tenperaturei buruz.
- C. Pirinioetan egingo duen eguraldiari buruz.
- D. Euskal Herrian egingo duen eguraldiari buruz.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen zentzu orokorra identifikatzea.
<b>Itemaren helburua:</b>	Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.
<b>Erantzun egokia:</b>	D / Euskal Herrian egingo duen eguraldiari buruz.

### 3.2.2. IRAKURMENA

#### 3.2.2.1. Postala

<b>TESTUAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Testuaren izenburua:</b>	POSTALA
<b>Erabilera esparrua:</b>	PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK
<b>Testuaren generoa:</b>	GUTUNA
<b>Iturria:</b>	INTERNET (MOLDATUTA)

Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun.



Venezia, otsailak 22

Kaixo, zer moduz?

Gu oso ondo ari gara pasatzen ezkonbidaiari. Aste bete daramagu Italian eta agindu nizuen bezala, postala bidaltzen dizuet.

Orain arte zorte ona izan dugu eguraldiarekin, eguzki ederra egun guztietan.

Gaur iritsi gara hiri zoragarri honetara eta orain San Marco plazan gaude. Benetan, ikusgarria da!

Gondolaz paseatzen ibili gara patxadaz – hemen ez dago autorik!– alderdi guztiak ikusten: kanalak, zubiak, elizak, plazak, jauregiak ...

Laster bukatuko zaigu oporraldia eta zortzi egun barru bueltatuko naiz.

Ordu arte, agur eta musu bana.

Andereño Arantxa



MENDIBEHEKO  
IKASTETXEA  
(4.B taldeko ikasleentzat)

Pagoeta kalea, 7

48300 GERNIKA  
BIZKAIA

ESPAÑA

**01**
**Nork idatzi du postala?**

- A. Marcosek.
- B. Adiskide batek.
- C. Arantxa andereñoak.
- D. Italiako neska-mutilek.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen helburua antzematea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren igorlea antzematen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C / Arantxa andereñoak.</i>

**02**
**Non dago andereño Arantxa?**

- A. Gernikan.
- B. Gondola batean.
- C. Veneziako San Marco plazan.
- D. Italiako hiri miragarri bateko Pagoeta kalean.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Berriazko informazioa antzematen eta identifikatzen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C / Veneziako San Marco plazan.</i>

03

**Noiz bidali du postala?**

- A. Ez du zehazten.
- B. Otsailaren 22an.
- C. Italiara iritsi bezain pronto.
- D. Italiara iritsi eta hilabete bat beranduago.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Irakurketaren helburua identifikatzen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>B / Otsailaren 22an.</i>

04

**Aukeratu testua laburtzen duen esaldia:**

- A. Oporretan denbora oso azkar igarotzen da.
- B. Andereñok bere ikasleak faltan botatzen ditu.
- C. Venezia oso polita da eta ondo pasatzen ari dira.
- D. Hiri horretan ez dago autorik eta dena ikusgarria da.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C / Venezia oso polita da eta ondo pasatzen ari dira.</i>



05

“Benetan, ikusgarria da!”. Zergatik uste duzu erabiltzen dela harridura ikurra?

- A. Beldurtuta dagoelako.
- B. Oso haserre dagoelako.
- C. Ikusten duena oso-oso polita iruditzen zaiolako.
- D. Ikusten duena oso-oso itsusia iruditzen zaiolako.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen edukia interpretatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C / Ikusten duena oso-oso polita iruditzen zaiolako.</i>

06

Eguraldiarekin zorte ona izan dutela dio, baina noiz joan dira?

- A. Udan.
- B. Neguan.
- C. Udaberrian.
- D. Udazkenean.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen edukia interpretatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren edukiari buruz inferentziak egiten ditu. Testuaren osagai inplizitu gehienak berreraikitzen ditu.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>B / Neguan.</i>

07

Zertara joan da Arantxa Italiara?

- A. Lana egitera.
- B. Familia bisitatzera.
- C. Ikasleekin bidaia bat egitera.
- D. Ezkondu denez, bidaiatzera eta ondo pasatzera.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren zentzu orokorra identifikatzen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>D / Ezkondu denez, bidaiatzera eta ondo pasatzera.</i>


### 3.2.2.2. Zer da GPS-a?

<b>TESTUAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Testuaren izenburua:</b>	Zer da GPS-a?
<b>Erabilera esparrua:</b>	AKADEMIKOA / DIBULGAZIOZKOA
<b>Testuaren generoa:</b>	AZALPENEZKOA
<b>Iturria:</b>	<a href="http://www.ibaizabal.com">www.ibaizabal.com</a>

**Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun.**

**ZER DEMONTRE OTE DA "GPS"A?**

- Aparatu horren bidez munduan egon daitekeen edozein pertsonaren, autoren, itsasontziren eta abarren posizio zehatza jakin daiteke.
- Zehaztasun handia du.
- Autoetarako GPSak edota baso ibilbideak, itsas nabigazioa... egiteko GPSak daude.
- Modernoenek errepedeetako mapa zehatzak dituzte edota hitz egiten dizute, zer bide hartu behar duzun esanez.
- Aparatu oso txikiak (ukabil bat bezalakoa) eta eramangarriak dira.
- 4-10 ordu irauten duen bateria izaten dute.
- 200-300 euro balio dute.



<http://www.ibaizabal.com/txokogaztea>

01

**Zergatik testuaren esaldiek daramate puntu beltz bat aurretik?**

- A. Testu hauetan horrela egiten delako beti.
- B. Informazioa era argitsu eta ordenatuan emateko.
- C. Gauza oso desberdinak aipatzen direla markatzeko.
- D. Puntu horiek ez dute funtziorik: testua apaintzeko balio dute soilik.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen edukia interpretatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren osagai inplizitu gehienak berreraikitzen ditu.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>B</i>

02

Testuaren arabera, zer da zehatz-mehatz GPS-a?

- A. Pertsonak, soilik, non dauden seinalatzeko erabiltzen den aparatua.
- B. Aparatu eramangarria mapa bat pantailan duena, zehaztasun handikoa.
- C. Zein bide hartu behar den esateko balio duen aparatua eramangarri zehatza.
- D. Edozein izaki nahiz objekturen kokalekua zehazteko eta ibilbidea markatzeko balio duen aparatua.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>D</i>

03

Testuaren arabera, nolakoa da GPS-a?

- A. Oso-oso txikia.
- B. Karratua eta luzea.
- C. Esku itxi baten tamainakoa.
- D. Eraman daiteken poltsa baten antzekoa.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren informazio-edukiari buruzko laburpen oso eta ordenatua egiten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C</i>

**04**
**GPS berri-berria erosi nahi dio Ainarak amari. Zergatik?**

- A. Zenbat eta modernoagoa orduan eta hobea delako.
- B. Modernoak beti zaharrak baino zehatzagoak direlako.
- C. Berri-berriek zer bide hartu behar den adierazten dutelako.
- D. Modernoek zaharrek baino iraupen handiagoko bateria dutelako.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen edukia interpretatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren osagai inplizitu gehienak berreraikitzen ditu.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C</i>

**05**
**GPS-aren bateriak iraun dezake...**

- A. hamabi ordu.
- B. sei ordu inguru.
- C. lau ordotara ez da iristen.
- D. hamar ordu baino gehiago.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>B</i>

06

**Non ager daiteke testu hau?**

- A. Nobela batean.
- B. Entziklopedia batean.
- C. Egunkari batean: albistea da.
- D. Aldizkari batean: informazio laburra da.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen helburua antzematea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren xedea identifikatzen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>D</i>

07

**Zeintzuk dira testuaren ideia nagusiak?**

- A. Oso aparatu moderno eta txikia dela.
- B. 200 eta 300 euro bitarteko prezioa duela eta oso zehatza dela.
- C. Errepideetako mapa zehatzak dituela eta hitz egiten dizula, zer bide hartu behar duzun esanez.
- D. Aparatua daramanaren posizioa zehaztasun handiz markatzen duela eta garraiotan bereziki erabiltzeko dela.

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren informazio-edukiari buruzko laburpen oso eta ordenatua egiten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>D</i>

### 3.2.2.3. Elurra


<b>TESTUAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Testuaren izenburua:</b>	<i>Elurra</i>
<b>Erabilera esparrua:</b>	<i>KOMUNIKABIDEAK</i>
<b>Testuaren generoa:</b>	<i>ALBISTEA</i>
<b>Iturria:</b>	<i>Mendinet aldizkari digitala (moldatuta)</i>

**Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun.**

**Elurra**

Mendillorri auzoa txuri-txuri geratu zen, urtarrilaren 24an, asteazkena, elurra bota zuen eta. Mendillorri txuri-txuri geratu zen. Elurra espaloietan eta errepideetan. Autoek eta autobusek arazoak izan zituzten gure auzotik bai sartzeko, bai ateratzeko.

Mendigoiti ikastetxeko ikasleak, aldiz, beraien zamarrak, botak, txanoak eta eskularruak jantzita, ttipi-tpata eskolara arazorik gabe ailegatu ziren.



Patioan, elurrak 10 cm-ko altuera lortu zuen. Hori ikusita, 3 urteko ikasle eta irakasleak patiora jolastera atera ziren eta elurrezko panpina polit bat egin zuten (argazkiak zintzilikatuak daude gure web gunean).

Jolas garaian 5. eta 6. mailakoak patiora atera ziren. 5 urtekoak ere atera ziren; Euskal Telebistako kamerak beraiek grabatzera etorri ziren.

Baina ez zen dena poza izan. Elurra errepidean zela-eta autobusak ikasleen bila ez ziren etorri eta bi ateraldi bertan behera geratu ziren. 3. mailakoak PLANETARIUMera joan gabe geratu ziren eta 4 urtekoak KILI-KILlra. Hala ere, esan beharra dago, dagoeneko talde hauen tutoreak telefonoz deika ari direla ateraldi hauetarako data berri batzuk lortzearren.

Mendinet Aldizkari digitala (egokituta)



01

Zein testu mota da hau?

- A. Albistea.
- B. Biografia.
- C. Iragarkia.
- D. Elkarrizketa.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen helburua antzematea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren generoa identifikatzen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>A / Albistea.</i>

02

Heldu ziren neska-mutilak Mendigoiti eskolara?

- A. Bai, oinez.
- B. Ez, Planetariuma joan ziren.
- C. Ez, denak etorri ziren autobusez.
- D. Bai, espaloietan ez zegoen elurrik.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>A / Bai, oinez.</i>

03

**Zeintzuk izan ziren ateraldirik gabe geratu ziren ikasleak?**

- A. Hiru urtekoak.
- B. 3. eta 4. mailakoak.
- C. ETBra joan behar zirenak.
- D. Lau urtekoak eta 3. mailakoak.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen edukia interpretatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren osagai implizitu gehienak berreraikitzen ditu.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>D / Lau urtekoak eta 3. mailakoak.</i>

04

**Zer kontatzen da testuan?**

- A. Neguan elurra egin zuela.
- B. Eskola itxi zutela elurra egin zuelako.
- C. Elurraren ondorioz, zer gertatu zen eskolan.
- D. Elurra zela eta, autoak eta autobusak ez zirela eskolara iritsi.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena.</i>
<b>Azpi-kompetentzia:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen zentzu orokorra identifikatzea.</i>
<b>Itemaren helburua:</b>	<i>Testuaren informazio-edukiari buruzko laburpen ordenatua egiten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C / Elurraren ondorioz, zer gertatu zen eskolan.</i>



## 4. MARKO BERRIA (HEZIBERRIN OINARRITUTA)



## 4.1. HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA EUSKARAZ. DIMENTSIOAK

<b>ENTZUMENA</b> Ebaluazio irizpideak	<b>IRAKURMENA</b> Ebaluazio irizpideak	<b>MINTZAMENA</b> Ebaluazio irizpideak	<b>IDAZMENA</b> Ebaluazio irizpideak	<b>AHOZKO ELKARREKINTZA</b> Ebaluazio irizpideak
1. Testuaren zentzu orokorra ulertzea. 2. Informazio zehatza aukeratzea. 3. Komunikazio egoeraren elementuak eta testuaren helburua ezagutzea. 4. Testuaren edukia interpretatzea. 5. Hizkuntzaren erabilera- ezagupenak erabiltzea.	1. Testuaren zentzu orokorra ulertzea. 2. Informazio zehatza aukeratzea. 3. Komunikazio egoeraren elementuak eta testuaren helburua ezagutzea. 4. Testuaren edukia interpretatzea. 5. Hizkuntzaren erabilera- ezagupenak erabiltzea.	1. Ahozko testu errazak eta ikasleen esperientzietatik hurbilak sortzea. 2. Ahozko testu errazak sortzea.	1. Errazak diren testu idatziak sortzea, komunikazio-egoeraren ezaugarriak kontuan izanda. 2. Ohiko idatzizko testu errazak sortzea.	1. Elkarrizketetan parte hartzea, era aktibo eta egokian. 2. Ohiko komunikazio trukeetan arau sozio-komunikatiboak errespetatzea. 3. Ohiko komunikazio trukeetan komunikazioa mantentzeko estrategiak erabiltzea.

## 4.2. HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAREN ITEM ADIBIDEAK. EUSKARA

### 4.2.1. ENTZUMENA

#### 4.2.1.1. Marmelada

<b>TESTUAREN DESKRIPTIONA</b>	
<b>Testuaren izenburua:</b>	MARMELADA
<b>Erabilera esparrua:</b>	HEDABIDEAK
<b>Testuaren generoa:</b>	INSTRUKZIOAK
<b>Iturria:</b>	<a href="http://www.ikasbil.eus">www.ikasbil.eus</a> (1704384)
<div style="text-align: center;">  <p><b><a href="#">3 Marmelada. mp3</a></b></p> <p><b>Audioa entzun eta galderei erantzun.</b></p> <p><b>MARMELADA</b></p> <p><b>TRANSKRIPZIOA</b></p> <div style="display: flex; align-items: flex-start;">  <div> <p>IGOR ZALAKAIN. Bai, nik marrubiena prestatuko dut.</p> <p>ESATARIA. A. begira! Marmelada klasikoa, ezta?</p> <p>IGOR ZALAKAIN. Kilo bat, kilo bat marrubi, hauek .... Kilo bat pisatuko ditugu garbitu ondoren, e? Bertako txortanak eta garbi-garbi egin ondoren, marrubi horiek pisatuko ditugu eta zera oso-oso handiak baldin badira lau bat zatitan, zera erdi mailakoak baldin badira erditik e... zatituko ditugu, eta beharko dugu 500 bat gramo azukre –nire kasuan ni oso gozozalea naiz–. Eta egingo duguna, ba, marrubiak azukrearekin nahastuko ditugu, estaliko dugu gure bol hori, adibidez, eta utziko dugu ordu pare batez. Ordu pare horretan, ba, zera, azukreak bere eginkizunak egingo ditu zera marrubiekin eta bertako ...</p> <p>ESATARIA. Zukuak ...</p> <p>IGOR ZALAKAIN. Zukuak eta aterako dizkie marrubiei eta gero ordu pare bat pasa ondoren, eta jarriko genuke sutan, sutan jarriko genuke eta behin jarriz gero sutan ba gutxi gorabehera utziko dugu egosten behin, jarriko dugu irakiten eta hasiera batetan apar zuri bat aterako zaigu goialdean, apar zuri hori ba kendu egingo dugu, suabe-suabe, apar zuria bakarrikan, e?, apar zuria bakarrikan, kendu egingo ditugu, kendu egingo dugu, eta gero ordubete bat utziko dugu ba, hasiera batean su fuerte batetan eta gero, ba su ... su ezti batetan utziko dugu ba ordubete batetan.</p> </div> </div> </div>	

01

Zer janari prestatuko dute ?

- A. Marmelada.
- B. Marrubi zukua.
- C. Marmelada pastela.
- D. Marrubi marmelada.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.
<b>Erantzun egokia:</b>	D / Marrubi marmelada

02

Nola egon behar dira marrubiak pisatzeko unean?

- A. Egosita.
- B. Zatituta.
- C. Garbituta.
- D. Txortenekin.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.



**Erantzun egokia:** C / Garbituta.

03

**Zenbat azukre behar da marrubi kiloko, jaki hori prestatzeko?**

- A. Kilo bat.
- B. Kilo erdi.
- C. 700 gramo.
- D. Kilo eta erdi.

#### ITEMAREN DESKRIPZIOA

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	Testuaren garrantzizko informazio ez literala bereizten du.
<b>Erantzun egokia:</b>	B / Kilo erdi.

04

**Zenbat denbora egon behar dira marrubiak azukrearekin nahastuta, bol batean?**

- A. 2 ordu.
- B. 3 ordu.
- C. Ordubete.
- D. Ordubete eta erdi.

#### ITEMAREN DESKRIPZIOA

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.

**Erantzun egokia:** A / 2 ordu.

05

**Nola egosi behar dira marrubiak?**

- A. Su motelean hasieratik.
- B. Su indartsuan denbora osoan.
- C. Suaren indarra behin eta berriro aldatuz.
- D. Hasieran su indartsuan eta gero su motelean.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.
<b>Erantzun egokia:</b>	D / Hasieran su indartsuan eta gero su motelean.

06

**Zer da testu hau?**

- A. Errezeta.
- B. Iragarkia.
- C. Sukaldaritza albistea.
- D. Lagunen arteko elkarrizketa.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen forma interpretatzea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	Testuaren generoa antzematen du.

**Erantzun egokia:** A / Errezeta.

07

**Zein da testu honen helburua?**

- A. Marmelada zer den azaltzea.
- B. Jaki bat prestatzeko jarraibideak ematea.
- C. Marmeladaren ezaugarriak deskribatzea.
- D. Marrubiak jakirik goxoen direla arrazoitzea.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	Entzumena
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko ahozko testuen helburua antzematea.
<b>Lorpen adierazlea:</b>	Testuaren xedea identifikatzen du.
<b>Erantzun egokia:</b>	B / Jaki bat prestatzeko jarraibideak ematea.





## 4.2.2. IRAKURMENA

## 4.2.2.1. Txikibarren

**TESTUAREN DESKRIPZIOA**

<b>Testuaren izenburua:</b>	TXIKIBARREN
<b>Erabilera esparrua:</b>	PERTSONEN ARTEKO HARREMANAK
<b>Testuaren generoa:</b>	INKESTA ALDIZKARI DIGITALEAN
<b>Iturria:</b>	INTERNET (MOLDATUTA)

Hurrengo testua irakurri eta galderei erantzun.

	?	
<b>Biloba</b>		<b>Amona</b>

Baiegi katea gustatzen zait, marnazki bizidunak ematen dituztelako.	Telebistako zein saio gustatzen zaizu gehien?	Telesailak ikustea gustatzen zait.
Ez dut izenburua gogoratzen. Geronimo Stiltonen liburuak gustatzen zaizkit.	Irakurri duzun azken liburua?	"Lo que el viento se llevó" irakurtzen ari naiz orain. Etxean ez dut astirik izaten, baina plazan gustura irakurtzen dut.
Titanic etxean atzean dagoen parkea. Han egoten gara lagunekin.	Elgoibarko zein leku gustatzen zaizu gehien?	Plaza. Elgoibarko lekurik politena iruditzen zait.
Bai, futboleaz jokatzen dut bereziki. Athletic zalea naiz.	Egiten duzu kirolrik?	Bai, zumba egiten dut. Apur bat galduta ibiltzen naiz, baina gustura.
Futbol zelaia berria egitea. Orain hasi dina obrak eta ondo geratuko da.	Zer eskatuko zenioke Elgoibarko alkateari?	Urazandirako igogailuren bat. Auzo horretan senideak ditut eta uste dut pikka bat lagata dagoela.
Elurrak Elur pilotak egin eta lagunekin jolasten oso ondo pasatzen dut.	Elurra ala eguzkia nahiago duzu?	Eguzkia. Niri elurra ez zait inoiz gustatu, umetan ere ez.
Norbaitek sustoa ematen didanean beldurtu egiten naiz.	Zerk ematen dizu beldurra?	Errepideak. Etxekoak bidaiari josten direnean kezkatuta egoten naiz.
Futboleko albisteen bat. Athletic-ek liga irabazi duela entzutea ondo egongo litzateke.	Irratia piztean. Zein albiste entzun nahiko zenuke?	Irratian ez ditut albisteak entzuten, musika entzutea gustatzen zait. Etxeko lanak egiteko beti jartzen dut musika.

Barren Elgoibarko aldizkari digitala (Moldatuta)

01

**Zer nolako programak ikusten dituzte telebistan?**

- A. Kirolak.
- B. Txapelketak.
- C. Denbora pasatzeko programak.
- D. Albisteak edo informazioa ematen dituztenak.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena</i>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan edukia interpretatzea.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>Ondorioak ateratzea (bi pertsonen erantzunak kontuan edukita).</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C / Denbora pasatzeko programak.</i>

02

**Kirola egiten al dute?**

- A. Bai, biek.
- B. Bai, futbola.
- C. Ez; galduta dabilta gai horretan.
- D. Zaleak dira baina haiek ez dute egiten.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena</i>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>A / Bai, biek.</i>

03

**Bilobak futbol zelai berria nahi du eta amonak igogailu bat. Nori eskatuko liokete?**

- A. Familiari.
- B. Auzoko elkarteari.
- C. Elgoibarko alkateari.
- D. Elgoibarko bizilagunei.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena</i>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan garrantzizko informazioa hautatzea.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>Testuaren garrantzizko informazioa bereizten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C / Elgoibarko alkateari.</i>

04

**Zelako informazioa ematen da testuan?**

- A. Albisteak.
- B. Iritzi pertsonalak.
- C. Gai batzuei buruzko azalpenak.
- D. Gai batzuei buruz alde edo aurkako arrazoiak.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena</i>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>Komunikazio egoeraren elementuak ezagutzea.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>Testu mota edo generoa bereizten du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>B / Iritzi pertsonalak.</i>

05

**Erreparaiozu bi argazkien artean dagoen galdera ikurrari. Zer adierazten du?**

- A. Zer erantzungo duten ez dakigula.
- B. Oso erantzun harrigarriak eman dituztela.
- C. Iraitzek eta Belenek ez dakitela zer erantzun.
- D. Asmatu behar dugula nork egin duen galdetegia.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena</i>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuetan forma interpretatzea.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>Ikurren erabilera ezagutzen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>A / Zer erantzungo duten ez dakigula.</i>

06

**Zure ustez, zertarako egin dizkiete galderak ume bati eta amona bati?**

- A. Adineko jendea kirola egiten animatzeko.
- B. Herritarren zaletasunen zerrenda osatzeko.
- C. Adin desberdinetako pertsonen interesak azaltzeko.
- D. Familiako kideen arteko desadostasunak agerian uzteko.

**ITEMAREN DESKRIPZIOA**

<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena</i>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen helburua antzematea.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>Testuaren xedea identifikatzen du.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>C / Adin desberdinetako pertsonen interesak azaltzeko.</i>



<b>07</b>	<b>Hauetariko zeintzuk gai jorratu dute galderak egitean? Klikatu 3 aukera egokiak.</b>	
	GAIAK	
	Interesak	
	Musika	
	Nahiak	
	Familia	
	Gustuak	
	Ikasketak	

<b>ITEMAREN DESKRIPZIOA</b>	
<b>Dimentsioa:</b>	<i>Irakurmena</i>
<b>Ebaluazio irizpidea:</b>	<i>Hizkuntzaren hainbat alorretatik heldutako ohiko idatzizko testuen zentzu orokorra ulertzea.</i>
<b>Lorpen adierazlea:</b>	<i>Azpi gaiak identifikatzen ditu.</i>
<b>Erantzun egokia:</b>	<i>Interesak + Nahiak + Gustuak. (Hirurak markatu behar dituzte)</i>